

**20/2018 TXOSTENA, ABENDUAREN 4KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA****XEDEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKORAKO ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURARAKO KONTRATAZIO ZENTRALIZATUAREN ADIERAZPENA EGITEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA****I.- AURREKARIAK.**

Gobernu Kontseiluak, 2017ko uztailaren 26ko bilkuran, beharrezko diren izapideak abiaraz zitezela eskatzea erabaki zuen, erosketa zentralizatuko ondasun deklaratu daitezkeen energia elektriko, gas natural, PGL eta erregai likidoen hornidurak, baldin eta hornidura horien xede badira autonomia-erkidegoak erabilitako eraikin administratiboak, orobat autonomia-erkidegoko sektore publikoarentzako eraikinak, erakunde autonomoek eta gainerako mendeko erakunde publikoek zerbitzu publikoa betetzeko baliatzen dituztenak. Horrez gain, beharrezko den erregelamendu-garapena agintzea erabaki zuen.

2017ko azaroaren 20an, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak energiaren kontratazio zentralizatuaren adierazpenerako administrazio-espedita bideratzea eta izapidetzea eskatu zion Ogasun eta Ekonomia Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, eta kontratazio zentralizatuaren adierazpena egokia dela arrazoitzen duen memoria eta araubide juridiko aplikagarria jasotzen duen txostena atxiki zizkion eskaerari.

2017ko abenduaren 11n, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak eskaera bat egin zion Ogasun eta Ekonomia Sailari, hala, Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetan energia elektriko hornitzeko kontratazio zentralizatu egiteko adierazpena ireki zezan.



Ogasun eta Ekonomia sailburuaren 2017ko abenduaren 12ko Agindu bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoetako erakundeetan energia elektrikoa hornitzeko kontratazio zentralizatua egiteko adierazpenerako administrazio-espeditentea irekitzea erabaki zen.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren 2017ko abenduaren 12ko 99/2017 Ebazpen bidez, honako hau erabaki zen:

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Baliabide Orokorraren Zuzendaritza izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 22.2 artikuluko c) eta d) letretan jasotzen diren dokumentuak egiteaz arduratuko den egiturazko unitate gisa, energia elektrikoaren hornidurarako kontratazio zentralizatua izatearen adierazpenerako irekitako espeditentearen barnean.
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 22.2 artikuluko a) eta b) letretan jasotzen diren dokumentuak egiteaz arduratuko den egiturazko unitate gisa, energia elektrikoaren hornidurarako kontratazio zentralizatua izatearen adierazpenerako irekitako espeditentearen barnean.

2018ko abuztuaren 20an, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuko 22.2 artikuluen a), b), c) eta d) letretan jasotako dokumentuak prestatu ondoren, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak ondorioen txosten bat egin zuen Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetan energia elektrikoa hornitzeko kontratazio zentralizatua izatearen adierazpenarekin lotuta.

Txosten horretan, honako hau jakinarazten da azken ondorio gisa:

«a.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetan energia elektrikoa hornitzeko kontratazio zentralizatua Euskadiko Energia Estrategikoa 2020 deiturikoan funtsatzen da eta Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretuarekin lerrokatzen da. Azken horretan, energiaren aurrezpena,



eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera jorratzen dira, helburu goresgarriak izateari utzi eta errealitate egiaztagarri bihur daitezten.

b.- *Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetan energia hornitzeko adierazpen zentralizatu egiteko espedienteak behar bezala betetzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak 20. artikulutik 25. artikulura (biak barne) xedatzen duena, bertan, gure Administrazioaren erosketa zentralizatu arautzen baita. Era berean, atxiki den dekretu-zirriborroaren edukia nahikoa izango litzateke, hasiera batean, Ogasun eta Ekonomia sailburuak hasierako onespina emateko eta, gero, dagozkion izapideak egin ondoren, Gobernu Kontseilura bidaltzeko.*

c.- *Gobernu Kontseiluak Dekretua onartzeko, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean aurreikusitakoa betetzen den ala ez azertu behar da, 3. artikuluan xedatzen denaren harira: "Lege honen ondorioetarako, xedapen orokorrak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak". Zentzu horretan, antolamendu juridikoa berritu da, erosketa zentralizatu egiten ez bada, energia elektrikoa erosteko araubide deszentralizatu bat egongo bailitzateke Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretutik eratorrita».*

Espedientearekin batera, Ogasun eta Ekonomia Saileko Aholkularitza Juridikoak egindako Dekretu-proiektuari buruzko txostena atxiki da eta, bertan, proiektua antolamendu juridikora egokitzen dela adierazten da.

Horrez gain, espedientean Ogasun eta Ekonomia sailburuaren Agindua jasotzen da eta, haren bidez, aldeztu aurretik onartzen da dekretu-proiektua, Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikorako energia elektrikoaren hornidurarako kontratazio zentralizatu adierazten duena.

Horrela, bada, hainbat txostenen xede izan den dekretu-proiektu honen kasuan kasuko izapideak egin dira, Ogasun eta Ekonomia Saileko Aholkularitza Juridikoak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren



Aholkularitza Batzorde honi txostena eskatu ondoren. Horrenbestez, jarraian adierazten den moduan idatzi da.

II. - ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIOAK.

TXOSTENA IGORTZEKO ESKUMENA.

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikulua honakoa ezartzen du: «Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko dira».

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. zenbakian xedatutakoari jarraikiz.

«27. artikulua.- Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Honako hauei buruz nahitaez informatzea:

1 .- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Xedapen-proiektua denez eta ez denez horren xedea sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluaekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

III. - EDUKIA.



Dekretu-proiektuak titulu bat, azalpen-zati bat, bost artikuluz osaturiko xedapen-zati bat eta azken xedapen bat ditu.

Honako hau da edukia:

- 1 artikulua: Helburua eta eremu subjektiboa.
- 2 artikulua: Kontratazio zentralizatua egiteko modalitateak.
- 3 artikulua: Kontratuen finantza-araubidea eta ekonomia- zein aurrekontu-kudeaketarena.
- 4 artikulua: Kontratazioa kudeatzeko eta betearazteko araubidea.
- 5 artikulua: Preskripzio teknikoen agiriak egiteko eta kontratazio-espeditentea kudeatzeko ardura duen egitura-unitatea.
- Azken xedapena: Indarrean sartzea.

IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Lehena.- Lehenik eta behin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentaraua aipatu behar da, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeek egindako kontratazioari buruzkoa, eremu horietan diharduten enpresa-erakunde publikoei eragin dakiekeelako eta erosketa zentralizatura jo dezaketelako, horien jarduketara bideratzen bada.

Honako hau dio 55. artikulua, erosketa-jarduera zentralizatuei eta erosketen zentralei buruzkoa:

«1. Estatu kideek xedatu ahal izango dute erakunde esleitzailleek **erosketen zentral bati obrak, hornidurak edo zerbitzuak erosi** ahal izango dizkiotela hark 2. artikuluko 10. puntuko a) letran adierazitako erosketa zentralizatuko jarduketa eskaintzen badu.

Era berean, Estatu kideek xedatu ahal izango dute erakunde esleitzailleek **obrak, hornidurak eta zerbitzuak erosi ahal izango dituztela erosketen zentral batek esleitutako kontratuen, erosketen zentral batek eskainitako erosketa-sistema dinamikoen edo 2. artikuluko 10. puntuko b) letran aipatzen den erosketa-jarduera zentralizatua eskaintzen duen erosketen zentral batek egindako esparru-akordio baten bitartez. Erosketen zentral batek eskainitako erosketa-sistema dinamiko bat beste erakunde esleitzaille batzuek erabil dezaketenean, hori**



argi eta garbi adieraziko da erosketa-sistema dinamikoa ezartzen den lizitazio-deialdian.

Lehen eta bigarren lerrokadei dagokionez, Estatu kideek xedatu ahal izango dute, kontratazio batzuk egiteko, erosketen zentraletara edo erosketen zentral jakin batetara edo gehiagotara jo ahal izango dutela.

2. Erakunde esleitzailerik batek behar bezala bete beharko ditu Zuzentzarau honek ezarritako obligazioak hornidurak edo zerbitzuak erosketen zentral bati erosten dizkionean, hark 2. artikuluko 10. puntuko a) letran adierazitako erosketa zentralizatuko jarduketara eskaintzen duenean.

Era berean, erakunde esleitzailerik Zuzentzarau honek ezarritako obligazioak bete beharko ditu, obrak, hornidurak eta zerbitzuak erosteko, erosketen zentral batek esleitutako kontratuetara, erosketen zentralak eskainitako erosketa-sistema dinamikoetara edo 2. artikuluko 10. puntuko a) letran aipatutako erosketa-jarduera zentralizatua eskaintzen duen erosketen zentralak egindako **esparru-akordio** batetara jotzen badu.

Dena den, **erakunde esleitzailerik interesdunak behar bezala bete beharko ditu Zuzentzarau honek ezartzen dituen betebeharrak, berak gauzatu behar dituen zatietan:**

a) Kontratu bat erosketen zentral batek eskainitako erosketa-sistema dinamiko baten bidez esleitzea.

b) Lizitazio berri bat deitzea, erosketen zentral batek egindako esparru-akordio bati jarraikiz.

3. **Erosketen zentral batek bideratutako kontratazio-prozedura guztiak komunikabide elektronikoak erabiliz egingo dira**, 40. artikuluan zehaztutako baldintzekin bat etorritik.

4. **Erakunde esleitzailerik zerbitzu-kontratu bat esleitu ahal izango dute erosketen zentral bati erosketa zentralizatuko jarduerak egiteko, Zuzentzarau honetan aurreikusitako prozedurak aplikatu gabe.**

Zerbitzu-kontratu horien barnean, erosketa-jarduera osagarriak egin ahal izango dira».

2. artikuluko 10) puntuari dagokionez, honela ulertu behar da erosketa-jarduera zentralizatuen definizioa: «Jarraian adierazten diren jarduerak mota iraunkor batzuk:

a) Erakunde esleitzailerik bideratutako hornidurak eta/edo zerbitzuak erostea.

b) Erakunde esleitzailerik bideratutako obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratazioen kontratuak edo esparru-akordioak esleitzea».



2. artikuluko 12) puntuan, erosketen zentrala definitzen da: «Zuzentarau honetako 4. artikuluko 1. apartatuko izaera duen erakunde esleitzaille bat edo erosketa-jarduera zentralizatuak eta, hala badagokio, erosketa-jarduera osagarriak egiten dituen botere esleitzaille bat, 2014/24/EB Zuzentarauko 2. artikuluko 1. apartatuko 1. puntuaren ondorioetarako.

Erosketen zentral batek erosketa-jarduera zentralizatueterako egiten dituen kontratazioak jarduera bat egiteko kontratazio gisa joko dira, 8. artikulutik 14. artikulura deskribatzen direnen gisakoak. Erosketen zentral batek erosketa-jarduera zentralizatuak egiteko kontratazioei ez zaie 18. artikulua aplikatuko». Esan behar da 8. artikuluko gas- eta berogailu-jardueraren inguruan hitz egiten duela eta, 9. artikuluko berriz, elektrizitate-jardueraren inguruan. 18. artikulua hirugarrenei bideratutako birsalmentarako edo finantza-errentamendurako esleitutako kontratuei buruzkoa da.

Bigarrena.- Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauak honako hau dio 69. kontuan hartuzkoaren azken lerrokadan: «*Era berean, Zuzentarau honetan aurreikusitako obligazioak betetzearen gaineko erantzukizunak esleitzeko arauak ezarri behar dira, erosketen zentralaren eta erosketen zentralari edo haren bitartez erosketak egiten dituzten botere esleitzailleen artean. Erosketen zentrala bada kontratazio-prozeduren garapenaren erantzule bakarra, hark bere legezkontasunaren berariazko eta zuzeneko erantzule izan beharko du. **Botere esleitzaille batek prozeduraren zati jakin batzuk bideratzen baditu, hala nola esparru-akordio batean oinarritutako lizitazio berri baten deialdia edo erosketa-sistema dinamiko batean oinarritutako kontratu zehatzen esleipena, hark gauzatzen dituen etapen erantzule izaten jarraitu beharko du***». Antzekoa da 2014/25/EB Zuzentarauaren 78. kontuan hartuzkoa.

2014/24/EB Zuzentarauaren 37. artikuluko honela dio, 2014/25/EB Zuzentarauko 55. artikuluan jasotakoaren antzera:

«Erosketa zentralizatuko jarduerak eta erosketen zentralak

1. Estatu kideek xedatu ahal izango dute botere esleitzailleek hornidurak eta/edo zerbitzuak eskatu ahal izango dizkiotela erosketen zentral bati, betiere hark 2. artikuluko 1. apartatuko 14. puntuko a) letran adierazitako erosketa-jarduera zentralizatua eskaintzen badu.

Era berean, Estatu kideek xedatu ahal izango dute botere esleitzailleek obrak, hornidurak eta zerbitzuak erosi ahal izango dituztela erosketen zentral batek esleitutako kontratuen, erosketen zentral batek eskainitako erosketa-sistema



dinamikoen edo, 33. artikuluko 2. apartatuko bigarren lerrokadan xedatzen den moduan, erosketen zentral batek egindako esparru-akordio baten bitartez, betiere hark 2. artikuluko 1. apartatuko 14. puntuko b) letran adierazitako erosketajarduera zentralizatua eskaintzen badu. Erosketen zentral batek eskainitako erosketa-sistema dinamiko bat beste erakunde esleitzaille batzuek erabil dezaketenean, hori argi eta garbi adieraziko da erosketa-sistema dinamikoa ezartzen den lizitazio-deialdian.

Lehen eta bigarren lerrokadei dagokienez, Estatu kideek xedatu ahal izango dute, kontratazio batzuk egiteko, erosketen zentraletara edo erosketen zentral jakin batetara edo gehiagotara jo ahal izango dutela.

2. Botere esleitzaille batek behar bezala bete beharko ditu Zuzentzarau honek ezarritako obligazioak hornidurak edo zerbitzuak erosketen zentral bati erosten dizkionean, hark 2. artikuluko 1. apartatuko 14. puntuko a) letran adierazitako erosketa zentralizatuko jarduketa eskaintzen duenean.

Era berean, botere esleitzaille batek Zuzentzarau honek ezarritako obligazioak bete beharko ditu, obrak, hornidurak eta zerbitzuak erosteko, erosketen zentral batek esleitutako kontratuetara, erosketen zentralak eskainitako erosketa-sistema dinamikoetara edo, 33. artikuluko 2. apartatuko bigarren lerrokadan adierazten den moduan, 2. artikuluko 1. apartatuko 14. puntuko b) letran aipatutako erosketa-jarduera zentralizatua eskaintzen duen erosketen zentralak egindako esparru-akordio batetara jotzen badu.

*Dena den, **erakunde esleitzaille interesdunak behar bezala bete beharko ditu Zuzentzarau honek berari dagozkion zatiei dagokienez ezartzen dizkion betebeharrak:***

a) Kontratu bat erosketen zentral batek eskainitako erosketa-sistema dinamiko baten bidez esleitzea.

b) Lizitazio berri bat deitzea, erosketen zentral batek egindako esparru-akordio bati jarraikiz.

c) 33. artikuluko 4. apartatuko a) edo b) letrei jarraikiz, eginkizun jakin bat esparru-akordioa osatzen duen zein eragile ekonomikorik beteko duen zehaztea, erosketen zentral batek egindako esparru-akordio baten arabera.

3. Erosketen zentral batek bideratutako kontratazio-prozedura guztiak komunikabide elektronikoen bitartez egingo dira, 22. artikuluan zehaztutako baldintzekin bat etorritz.

4. Botere esleitzailleek zerbitzu-kontratu bat esleitu ahal izango dute erosketen zentral bati erosketa zentralizatuko jarduerak egiteko, Zuzentzarau honetan aurreikusitako prozedurak aplikatu gabe.



Zerbitzuen kontratu publiko horien barnean, erosketa-jarduera osagarriak egin ahal izango dira».

Hirugarrena.- Sektore Publikoko Kontratuen Legeak (azaroaren 8ko 9/2017), zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten den Espainiako ordenamendu juridikora, eta hauek hartu behar dira kontuan kontratazio-zentralen gainean:

«227. artikulua. Funtzionaltasuna eta jarduteko printzipioak.

1. Sektore publikoko erakundeek zentralizatu egin ahal izango dute lan, zerbitzu eta horniduren kontratazioa, eta zerbitzu espezializatuei esleitu.

2. **Kontrataziorako zentralek sektore publikoko beste erakunde batzuetarako hornidurak eta zerbitzuak eskuratuko dituzte, edo kontratuak esleitu edo esparru-akordioak eta erosketa-sistema dinamikoak egin, kontratazio-organo horietarako lanak, hornidurak edo zerbitzuak egiteko.**

3. Kontrataziorako zentralek, kontratuak, esparru-akordioak eta erosketa-sistema dinamikoak esleitzeko orduan, Lege honen xedapenak eta Lege hau garatzeko arauak bete beharko dituzte.

4. **Kontratazio zentralizatuko esparru-akordioetan, esparru-akordioaren parte diren enpresen eta sektore publikoko erakundeen arteko kontratuak egin ahal izango dira, baita sektore publikoko beste erakunde batzuekin ere, betiere ente, entitate edo erakunde horiek esparru-akordioaren plegu arautzailean identifikatu badira eta egoera hori lizitazio-deialdian jaso bada.**

228. artikulua. Autonomia-erkidegoetan eta tokiko erakundeetan kontratazio guneak sortzea.

1. Autonomia-erkidegoek, kontrataziorako zentralak sortzeko, beren eskumenak erabiliz Lege hau garatzeko emandako arauak xedatutakoa bete beharko dute.

2. ...

3. **Kasuan kasuko akordioen bitartez, autonomia-erkidegoak, Ceuta eta Melillako hiri autonomoak eta tokiko erakunde eta aurrekoen menpeko erakundeak eta entitateak Lege honen aplikazio-eremuaren barneko sektore publikoko beste erakunde batzuen erosketa zentralizatuko sistemetara atxiki ahal izango dira.** Kontratazio zentralizatuaren Estatuko



sistemara atxikitzeko, Lege honen 229. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa bete beharko da. **Administrazio, ente edo erakunde batek ezin izango du, inola ere, prestazio beraren hornidura kontratatu hainbat kontratazio-zentralen bitartez».**

229. artikulua. Araubide orokorra

...

3. Sektore publikoko gainerako erakundeek atxikipen-akordio bat egin ahal izango dute Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiarekin, hala, kontratazio zentralizatu gisa aitortutako obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratazio zentralizatuaren Estatuko sistemaren bitartez kontratatzeko.

4. Aurreko apartatuan aipatzen diren atxikipen-akordioen edukia eta prozedura Ogasun eta Funtzio Publikoko ministroaren Agindu bidez ezarriko dira.

6. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak edo erosketa-sistema dinamiko baten esparruan esleitutako kontratuak esleitzeko kontratazio-organoa –haren hartzaillea Administrazio, erakunde edo erakunde atxiki bat denean– Administrazio, erakunde edo entitate horiei aplikatu beharreko arau orokorretan aurreikusitakoa izango da.

Kontratazio Zentralizatuko Batzordeak egokitzat jotzen dituen neurriak ezarriko ditu esparru-akordio eta erosketa-sistema dinamiko bakoitzean, atxikitako erakundeek izapidetutako kontratazio-espedienteek, lizitazio-arauen aplikazioak eta kontratisten hautaketak, adostutako esleipenek eta kontratuen exekuzioak akordio eta sistema horiek arautzen dituzten pleguetan ezarritako terminoak eta baldintzak betetzen dituztela bermatzeko. Horretarako, erreminta informatiko zehatzak erabiltzea, nahitaezko txosten lotesleak bidaltzea edo xede horretarako beste edozein bitarteko erabiltzea adostu ahal izango du.

7. Lan, hornidura edo zerbitzuen kontratazio zentralizatua honako prozedura hauen bitartez egin ahal izango da:

a) Dagokion kontratua eginez. Kontratu hori Liburu honen I. Tituluaren I. Kapituluaren jasotako prozedura-arauekin bat etorritik esleitu da.

b) Esparru-akordioaren bitartez.

c) Erosketa-sistema dinamikoaren bitartez.

...



9. Ondasunen eta zerbitzuen harrera eta ordainketa horiek eskatu dituzten erakundeek egingo dituzte, horiek esparru-akordio batean eta erosketa-sistema dinamiko baten esparruan esleitutako kontratu zehatzetan oinarritzen direnean».

Laugarrena.- Autonomia-erkidegoko araudiari dagokionez, honako aurreikuspen hauek jasotzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak:

Gobernu-kontseiluak ematen dituen ahalmenen artean, honako hau dakar 3. artikulua:

- «4.- **Horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazio zentralizatua izatearen adierazpenak egitea.**

- 6.- **Beste administrazio batzuen kontratazio-sistema zentralizatuari atxikitzeko hitzarmenak sinatzeko baimenak ematea, baita beste administrazio batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-sistema zentralizatuari atxikitzeko hitzarmenei buruzko baimenak ere, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularrak proposatuta».**

5.8.a) artikulua Ogasun eta Ekonomia Saileko **Ondare eta Kontratazio** Zuzendaritzari esleitzen dio <<Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko **horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazio zentralizatutzat jotzeko administrazio-espedienteak** antolatzea eta izapidetzea, baita mota horretakotzat jotako prestazioak eskuratzeko **kontratazio-espedienteak kudeatzea** ere>>.

Era berean, 10. artikulua arabera, **Kontratazio Batzorde Zentralari** dagokio –Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzara atxikitako kide anitzeko organoa – **Kontratazio Mahaiaren** eskumenak eta funtzioak gauzatzea, beste espediente batzuen artean, honako hauetan:

«b) Dekretu honen I. tituluaren III. kapituluko 2. atalak arautzen dituen **hornidura, obra eta zerbitzuen kontratazio zentralizatua** xede duten kontratuak».

11. artikulua arabera, Batzorde horrek kontratu horiek tratatzen dituenean, hark Dekretuaren 25. artikuluan zehaztutako osaera izango du.

16. artikuluan bateratutako kudeaketako higiezinen adierazpenaren tratamendua egin ondoren, honako hau dio 17. artikulua, adierazpen horren ondorioei buruzkoak:



«Higiezin bat kudeaketa bateratukoa delako adierazpenak berekin dakar sailarteko zerbitzuen alorreko eskumena duen sailari esleitzea dekretuan bertan kasu bakoitzerako zehazten diren hornidura, obra eta zerbitzuak kontratatzeke eskumena.

Helburuaren irismena ez bada espresuki zehazten, prestazio hauetarako erabiliko da kudeaketa bateratua, **prestazio horiek kontratazio zentralizatukotzat jotzen ez diren bitartean:**

[...]

2.- Hornidurak: higiezinaren behar bezalako funtzionamendurako nahitaezkoak diren altzariak eta ondasunak, baita ondasun kontsumigarriak edo erabiliz erraz hondatzeko modukoak eta bertako zerbitzuek modu uniformean eta normalean erabiltzen dituztenak ere».

Horrez gain, Dekretuaren I. tituluko III. kapituluko 2. atal osoa izan behar da kontuan, Obra, Zerbitzu eta Horniduren Kontratazio Zentralizatua arautzen duena:

«20. artikulua.- Kontratazio zentralizatua.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek orokorrean eta funtsean ezaugarri homogeenak dituzten hornidurak, obrak eta zerbitzuak kontratatzen dituztenean, **kontratazio zentralizatuko izaera dutelako adierazpena lor dezakete Gobernu Kontseiluaren Dekretu bidez, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularrak proposatuta.**

Adierazpenak berekin ekarriko du izendatutako kontratazio-organoak beste kontratazio-organo batzuentzat eskuratzea hornidurak, obrak eta zerbitzuak.

2.- Kontratazio zentralizatuaren adierazpena **aldatzeko**, aurreko paragrafoan adierazitako **formalitateak eta baldintzak** bete behar dira.

21. artikulua.- Modalitateak.

Kontratazio zentralizatua **modalitate** hauetako baten bidez gauza daiteke:

a) Hornidurak, obrak edo zerbitzuak zuzenean eskuratzeko kasuan kasuko **kontratuak** eginez. Modalitate hori aukeratuz gero, kontratazio zentralizatuaren adierazpena egiteko dekretuak jasoko ditu kontratuari aplikatzekoak zaizkion **finantza-araubidea eta ekonomia- zein aurrekontu-kudeaketaren araubidea.**

b) Enpresaburu batekin edo gehiagorekin **esparru-akordioak** eginez gero, hornidurak, obrak edo zerbitzuak denbora-epe jakin baterako homologatzeko; horrela, eskatzen dituzten organoek epe horretan amaitu ahal izango dituzte beharrezko diren **kontratu eratorriak**, eta eskuratutako gastua eta kudeaketa zuzenean beren gain hartuko dituzte.



c) **Kontratazio-sistema dinamikoak** ezarriz, sektore publikoko kontratuen legedian jasotako araubidearen arabera.

22. artikulua.– Kontratazio zentralizatua izatearen adierazpena.

1.– Horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazio zentralizatuaren adierazpena egiteko, dagokion administrazio-**espedientea** irekiko da, eta espediente hori bideratzea eta behar bezala izapidetzea **Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari** dagokio; bere ekimenez jardun ahal izateaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta Instituzionalean dauden botere esleitzzaileak hala eskatuta jardun ahal izango du.

Ekimena botere esleitzzaileena denean, sustatzaileek espedienteari hasiera emateko eskatu behar diote Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, hurrengo zenbakiko a) eta b) letretan adierazitako dokumentuak aurkeztuta.

2.– Espedientea hasteko, beharrezkoa izango da **Kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren dagokion Agindua**, eta dokumentu hauek sartu beharko dira bertan:

a) Kasuan kasuko horniduraren, obraren edo zerbitzuaren kontratazio zentralizatua egiteko adierazpena egokia dela **arrazoitzen duen memoria**.

b) **Sektore horretan aplikatzen den** edo, hala badagokio, kontratatu beharreko prestazioei aplikatzekoa zaien **araubide juridikoa** jasotzen duen txostena.

c) Botere esleitzzaile guztiek kontratatuta dituzten **prestazio homogeneoen ezaugarri tekniko**en azterketa eta premien zenbatekoei buruzko azterketa jasotzen duen txostena.

d) **Aurreko bi urteetan hitzartutako prezioen azterketa ekonomikoa**.

3.– **Ondare eta Kontratazioko zuzendariak**, aurreko 2. zenbakian adierazitako dokumentuak egiteko, **egitura-unitate** jakin bat edo batzuk izendatu ahal izango ditu, edo, beharrezkotzat hartuz gero, hori egiteko agin diezaioke **diziplinarteko batzorde** bati; batzorde horren osaera eta eginkizunak kasuan kasuko prestazioaren izaerari eta ezaugarriei ondoen egokitzen zaizkienak izango dira.

4.– Hori guztia oinarri hartuta, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak ondorioei buruzko **txosten** bat egingo du eta **kontratazioaren** alorrean eskumena duen sailaren titularrari helaraziko dio; horrekin batera, egoki irudituz gero, kontratazio zentralizatuaren adierazpena egiteko **Dekretu-proiektua** ere bidaliko dio, Gobernu Kontseiluari bidaltzeko.

5.– Hornidura, obra edo zerbitzu jakin bat eskuratzeko kontratazio zentralizatuaren adierazpena egiteko **Dekretuak** berariaz adierazi behar ditu hauek:

a) Kontratazio zentralizatuaren **eremu subjektiboa**.

b) **Kontratazio** zentralizatua egiteko **modalitatea**.



c) Kontratuaren **finantza-araubidea eta ekonomia- zein aurrekontu-kudeaketarena**.

d) Kontrata **betetzeko** kudeaketa-**araubidea**.

e) **Preskripzio teknikoen plegua egiteko ardura duen** egitura-unitatea.

6.- Kontratazio zentralizatuaren adierazpenaren dekretua **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian** eta Kontratazio Publikoa Euskadin **Plataforman** argitaratuko da.

23. artikulua.- Adierazpenaren ondoreak.

1.- Kontratazio zentralizatukotzat jotako hornidurak, obrak eta zerbitzuak atal honetan xedatutakoa betez kontratatuko dira beti.

2.- Atal honen eremuak barruan hartzen dituen **erakundeek** preskripzio teknikoen plegua egiteko ardura duen egitura-unitateari jakinaraziko diote zer **kontratazio-premia** dituzten hornidurari, lanari edo zerbitzuari dagokionez. Jakinarazpen hori nola eta zer epetan egin behar den, kontratazio zentralizaturako eskumena duen kontratazio-organoak zehaztuko du.

3.- Eskuratze zentralizatuko kontrata esleitzen ez den bitartean edo ondorengo esleipenerako operadore ekonomikoak hautatzen ez diren bitartean, edota hautatutako elementuek ez badituzte betetzen eskaera egin duen organismoaren premia jakinei erantzuteko ezinbestekoak diren ezaugarriak, hornidurak, eskumenari eta prozedurari buruzko arau orokorrak beteko dira lanak edo zerbitzuak kontratatzeke, Dekretu honen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako Kontratazio Batzorde Nagusiak aldeko txostena eman ondoren.

24. artikulua.- **Kontratazio-organoa**.

Horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazio zentralizatuan, kontratazio-organoaren berezko ahalmenak gauzatzea egokituko zaio **Kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularrari**.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko **botere esleitzzaileen barruko organoek** nahitaez eman behar diote **aholkularitza teknikoa**, eskatutako guztietan, kontratazio-organoari, baldin eta haien eskumenen eremua dela-eta kontratatu beharreko ondasunak, obrak edo zerbitzuak teknikoki oso ondo ezagutzen badituzte, edo, hala badagokio, kasuan kasuko prestazioaren sektoreko merkatua oso ondo ezagutzen badute.

25. artikulua.- **Kontratazio-mahaia**.

1.- Kontratazioaren alorrean eskumena duen saileko titularrak da kontratazio zentralizatuko horniduren, obren edo zerbitzuen kontratazio-organoa, eta **Kontratazio Batzorde Nagusiaren** laguntza izango du dagozkion eginkizunak betetzeko. **Ondare eta Kontratazioko zuzendaria** izango da batzorde horretako presidentea, eta kargua hutsik badago, kanpoan baldin bada, gaixo badago edo



beste legezko kausaren bat gertatuz gero, Baliabide Orokorretako zuzendariak beteko du haren lekua. Biak falta badira, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako edo Baliabide Orokorren Zuzendaritzako kontratazio-zerbitzuen arduraduna izango da presidente; bietako bat.

2.- Eta hauek izango dira **kide**:

a) **Baliabide Orokorren zuzendaria.**

b) **Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuen arduradunak.** Haiek lege-aholkularitza emango diote kontratazio-organoari.

c) Administrazio **bi funtzionario**, kontratuaren xedearekin zerikusia duten eginkizunak betetzen dituztenen artetik izendatuak. Kontratazio-organoak izendatuko ditu, eta behar duen **aholkularitza tekniko** emango diote organo horri.

d) **Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkari bat.**

e) **Funtzionario bat, kide anitzeko organoko idazkaritza-lanak** egingo dituena.

3.- Bileran landu beharreko gaien arabera beharrezko diren **aholkulari espezializatuak edo funtzionarioak** ere eraman daitezke mahaiaren bileretara, kontratazio-organoak dagokion gonbita egin ondoren. Halakoetan, **hitz egiteko aukera izango dute, baina ez botoa ematekoa.**

4.- Artikulu honetan berariaz xedatzen ez den guztian, Kontratazio Batzorde Nagusia, kontratazio zentralizatuaren kontratazio-mahaiaren eginkizunetan, dekretu honetan kontratazio-mahaietarako orokorrean xedatutakoaren pean egongo da».

Bosgarrena.- Ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuak Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du. Aurrez 15.c).4 artikuluan (Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren funtzioak) aipatutakoa berresten du. Honela dio:

«4) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Instituzionalaren horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazioa kontratazio zentralizatu izendatzeko administrazio-espeditzea osatu eta izapidetzea, eta mota horretakotzat jotako prestazioak eskuratzeko kontratazio irekiko espedienteak kudeatzea».

Seigarrena.- Txosten honetan nahitaez egin behar diogu erreferentzia irailaren 22ko 178/2015 Dekretuari, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoari.

Batetik, eraikinetarako erosi behar den energiari buruzko aipamen interesgarriak egiten dira:



«11. artikulua.– Iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren erabilera.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko alor publikoak lortu behar du bere eraikinetatik gutxienez % 32k 2020an eta % 40k 2025ean energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioak izatea, aprobetxamendu termikoko sistemak zein elektrizitatea sortzekoak erabilia horretarako.

2.– Energia berriztagarrien instalazioak ezartzeko aintzat hartzen dira horretarako dauden zailtasunak, besteak beste, hirigintza-arazoak, eguzkiaren argia jasotzekoak, aire-korronteak, paisaia dela-eta sortutakoak, pertsonen, garraiobideen eta beste jabetza batzuen segurtasunaren ingurukoak, ondare historiko-artistikoaren babesarenak edo biodibertsitatearenak, eta, eraikin horiek, batik bat osasun zerbitzuetakoak eta segurtasun publikokoak, dituzten eginkizun espezifikoak».

Bestetik, 14. artikuluan jarduketa energetikorako unitateak zehazten dira, eta horiek kontuan hartu beharko lirateke erosketaren zentralizatuan guztiak edo ez sartzeko orduan. Honako hauek dira:

«a) Hainbat eraikin kudeaketa zentralizatukoak direla adierazteko den azaroaren 15eko 382/2005 Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen diren kudeaketa zentralizatuko eraikinak.

b) Euskal Irrati Telebistako instalazioak (EITB).

c) Euskotreneko instalazioak.

d) Osakidetza–Euskal osasun-zerbitzuko zerbitzu-erakundeak eta horien egiturak.

e) Herritarren Segurtasunaren alorrean eskumena duen sailari atxikitako instalazioak.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko ikastetxe publikoak.

g) Hiru lurralde historikoetako justizia-jauregiak eta horiei dagozkien epaitegiak.

h) Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko museoak eta agiritegiak.

i) Eusko Jaurlaritzaren jabetzako etxebizitzak, alokairuan ematekoak.

j) Nekazaritza- eta arrantza-prestakuntzako institutuak.

k) Euskadiko parke teknologikoen sareko eraikinak».

V.- ONDORIOAK.

Hori guztia esanda, eta antolamendu juridikoan horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazio zentralizatuari dagokionez xedatzen dena ikusita, onetsizat eman da Dekretu-proiektua.

